



**GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.k**  
**HERNANIKO UDALERRIAN SELEKTIBOKI JASOTAKO**  
**ERREFUSAREN TRANSFERENTZIA ZERBITZUA**  
**KONTRATATZEKO**  
**AGIRI TEKNIKOA**

**BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA**

## AURKIBIDEA

1. - AGIRI TEKNIKOAREN HELBURUA.....	3
2. – LURRALDE EREMUA .....	3
3. – ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA.....	3
3.1. Bildu beharreko hondakinak .....	3
3.2.-Bilketaren modalitatea .....	3
3.3. Bildu beharreko hondakinen kopurua.....	5
3.4. Bilketa maiztasuna, egutegia eta ordutegia.....	6
3.5. Bilketaren beste alderdi batzuk .....	7
3.6. Hondakinaren garraioa .....	7
4. – ZERBITZUAREN ANTOLAKETA.....	8
5. – LANEN GAINBEGIRATZEA .....	8

## 1. - AGIRI TEKNIKOAREN HELBURUA

Agiri honen xedea ondorengo da: Hernaniko udalerrian gaika bildutako errefusaren garraio zerbitzua kontratatzeko oinarri gisa erabiliko diren hainbat baldintza tekniko zehaztea.

Zerbitzuaren laburpena honakoa da:

- Hernaniko udalerrian Garbitania Zero Zabor S.M.k gaika jasotako errefusaz beteriko kontainera hartzea (San Marko mankomunitatearen jabetzakoa).
- Materiala San Markoko transferentzia gunean dagoen errefusaren toberan hustutzea, edota Garbitania Zero Zaborrek agindutako beste zentzoren batean.
- Kontainer hutsa berriro bueltan bere lekuan birkokatzea.

## 2. – LURRALDE EREMUA

Agiri honetan deskribatzen diren garraio lanak Hernaniko udalerrira mugatuko dira.

## 3. – ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Zerbitzu honen lanetan, materiala Garbitania Zero Zaborrek seinalaturiko tratamendu-zentroraino garraiatu eta bertan deskargatu arte burutu beharreko beharrezko eragiketa guztiak sartuko dira.

### *3.1. Bildu beharreko hondakinak*

Garbitania Zero Zabor-ek Hernaniko udalerrian atez ateko gaikako bilketan jasotako errefusa dagokion edukiontzian hustu ondoren, kontainer hau Garbitania Zero Zabor-ek zehazturiko zentzora eraman eta deskargatu beharko da. Zerbitzuaren esleipendunaren betebeharra izango da zerbitzua ematea Garbitania Zero Zabor-ek ezarritako egutegi, maiztasun eta ordutegiarekin bat, honek esleitutako zerbitzuaren prezioan aldaketarik suposatu gabe.

### *3.2.-Bilketaren modalitatea*

Kontainerrak garraiatzea izango da zerbitzu honen modalitatea.

Enpresa esleipendunak Garbitania Zero Zabor-ek aipaturiko gunean kokatu beharko du kontainera, bertan Garbitaniako bilketa ekipoei gaika bildutako errefusa hustu dezaten. Kontainer hau San Marko mankomunitatearen jabetzakoa izango da eta jarraian aipatzen diren ezaugarriak izango ditu:

- Gutxienez 20m<sup>3</sup>-ko edukiera izango du.
- Gantxoaren bidez kamioiak heltzeko aukera izango du.

- Euriak barruko karga ez bustitzeko toldo bat izango du (San Marko mankomunitatearen jabetzakoa).
- Ondorengo argazkietan agertzen da zein motatakoa den edukiontzia eta zein ezaugarri dituen.



Matxuraren bat medio kontainer hau erabiltzerik ez balego, enpresa esleipendunak antzeko ezaugarriak dituen edukiontzi bat ipini beharko du.

Arestian aipatu gisa, garraiatutako kontainerrak San Marko mankomunitatearenak izanik berak adierazi gisara erabiliak izango dira. Erabilera okerrarengatik matxurarik edo hausturarik sortuko balitz kontainerretan honela jokatu da:

- Erabilera desegokia eta matxuraren ardura Garbitania Zero Zabor-eko langileena izan bada, Garbitania Zero Zabor egingo da konponketaren kostearen kargu, eta beharrezkoa litzatekeen kasuan, baita ordezko kontainerraren alokairuaren kargu ere.
- Erabilera desegokia eta matxuraren ardura esleipendunarena bada, esleipenduna egingo da konponketa kostuaren kargu, eta beharrezkoa litzatekeen kasuan, baita ordezko kontainerraren alokairuaren kargu ere. Edozein kasutan, esleipendunak matxuraren berri ahal bezain pronto emango dio Garbitaniari.

Kontainerraren garbiketa protokoloa honakoa izango da: kokatzeko unean kontainerrak garbia egon beharko du eta ez du edukiko hondakin hondarririk. Gutxienez astean behin garbiketa sakon bat egin beharko zaio. Garbiketa horren kostua enpresa esleipendunaren kontura joango da eta eskaintzan zehazturiko prezioaren barnean egongo da, inolaz ere aparteko kostu moduan inputatu ezingo delarik.

Garbiketa protokoloa ez betetzea hutsegite larria izango da.

Zerbitzuaren maiztasunean aldaketarik egongo balitz prezio unitarioa ez litzateke berrikusiko. Aldiz, deskarga puntuan 20km edo gorako desbideratzea egongo balitz garraio bakoitzeko prezio unitarioa berrikusi eta egokituko litzateke. Egokitapena 20. km-ko desbideratsetik aurrera aplikatuko litzateke, ondorengo formula aplikatuz:

$$EG=(DPB - (EDP + 20)) \times 4,5$$

Non,

*EG: Egokitzapena (€ BEZ barne)*

*DPB:* Hernaniko zentrotik deskarga puntu berrirako joanerako km kopurua (Garbitaniak ezarritako bide azkar eta motzena)

*EDP:* Hernaniko zentrotik egungo deskarga punturako km kopurua (Garbitaniak ezarritako bide azkar eta motzena)

Modu honetara, garraio berriaren prezio unitarioa (GBPU), BEZ barne, honakoa litzateke:

$$GBPU = LP + EG$$

Non,

*LP:* Lizitatutako prezioa (BEZ barne)

Hondakinaren garraioa ibilgailu egoki baten bidez egingo da, eskaintzaileak proposatu eta arrazoituko duen gisan.

Aipaturiko funtzioez aparte, esleipendunaren egitekoa izango da garraioaren aurretik hondakinaren egoera ikuskatzea, eta hau nahastuta agertuko balitz edo ezaugarri anormalen bat izango balu, inolako mugimendurik egin aurretik Hernaniko udalerriko atez ateko informazio bulegoari jakinaraztea.

### **3.3. Bildu beharreko hondakinaren kopurua**

Atal honetan 2016.urtean buruturiko garraioen ezaugarriak azaltzen dira, bai urtean zehar egindako bidai kopuruari dagokionean, baita horietako bakoitzean eramandako toneladen ingurukoa ere. Informazio hau orientazio moduan baliaigarria izan dadin atxikitzen da eta ez du izaera mugatzailerik. Gainera, jardueraren ohiko funtzionamenduan izan daitezkeen igoera edota jaitsieretan oinarrituta, garraio bakoitzeko pisua edota hauen kopurua aldatu ahal izango da kontratuan zehar.

Jarraian, 2016.urtean Hernaniko udalerrian modalitate honen bitartez garraiatutako bidaia bakoitzean eraman zen errefusa tonen inguruko informazioa ematen da:

<b>2016</b>	<b>tn/bidaia</b>
Batezbestekoa	4,48
Maximoa	6,58
Minimoa	2,14

Garraio kopuruari dagokionean, berriz, 2016.urtean ez zen antzeman produkzio handiagoa izan zen periodorik. Urte osoan zehar astero bi bidaia eman ziren, hiru kasutan izan ezik: bi astetan (abuztuko lehenengo astean eta abenduko hirugarren astean) hiru bidaia egin ziren, eta beste aste batean (abuztuko azken astean) bidaia bakarra egin zen.

Ondorioz, 2016.urtean eman zen bidaia kopuruaren banaketa nahiko homogeneoa izan zen:

Hilabetea	Bidaia kop/ hilabetea	Bidaia kop/ seihilekoa
Urtarrila	8	52
Otsaila	9	
Martxoa	8	
Apirila	9	
Maiatza	9	
Ekaina	9	
Uztaila	8	53
Abuztua	9	
Iraila	9	
Urria	9	
Azaroa	8	
Abendua	10	

Hala ere, kontratuan zehar produkzioa handiagoko bolada bat hautemango balitz Garbitania Zero Zabor-eko teknikarien aldetik edo enpresa esleipendunaren aldetik, azken honek zerbitzua behar bezala eman ahal izateko beharrezko errefortzuak aurreikusi beharko ditu.

### **3.4. Bilketa maiztasuna, egutegia eta ordutegia**

Esleipendunak Garbitaniak esandako egunak eta ordutegiak errespetatu beharko ditu. Edozein kasutan, zerbitzua Garbitania Zero Zaborreko teknikariek eskatzen duten bakoitzean eman beharko da. Normalean astean 2 bidaia burutuko dira eta asteko edozein egunetan burutu ahal izango dira, igandean izan ezik, zeinetan ezusteko arazoren bat sortuko kasuan soilik burutuko den garraioa.

Gaur egun, Garbitania Zero Zaborek etxeetako errefusaren gaikako bilketa astean behin egiten du, larunbat gauetan. Errefusa komertziala ere astean behin jasotzen da, astelehen goizetan.

Garbitania Zero Zaborren esku geratzen da kontratatutako bilketa maiztasuna handitzea, zerbitzu egoki bat bermatzeko.

Esleipendunak proposatu eta Garbitania Zero Zaborrek onartutako egutegia zorrozki errespetatu eta bete beharko da. Jaiegunetan ere zerbitzua normal emango da, kasu bakoitzean Garbitania Zero Zabor-ek emandako argibideekin bat.

Garrantzitsua da astelehenetan lehenengo orduan (gutxi gorabehera goizeko 7:00etan) kontainerra hutsik eta bere lekuan kokaturik egotea, erabiltzen hasteko prest.

Kontrolagarriak izan ez diren kanpo faktoreengatik bilketa amaiera ordua atzeratuko

balitz, zerbitzua Garbitaniak azken deskarga burutu ostean egingo litzateke. Beti ere Garbitaniak esleipendunari abisua pasatuko diolarik aurretiaz.

### ***3.5. Bilketaren beste alderdi batzuk***

Kontainerren garraio zerbitzuak horiek jaso baino lehen barnekoa ondo berezita dagoela egiaztatu beharko du. Helburua hondakinak modu egokian entregatzea da.

Bilketa zerbitzuak hondakin desegokiak dituen karga bat hautematen badu, beti bildu baino lehen atez ateko informazio bulegoari jakinarazi beharko dio edozein erabaki hartzeko eta bertan aztertu ondoren esaten zaiona egin beharko du.

Esleipendunak zerbitzua egitean tentuz aritu beharko du kontainerrak manipulatzeko dituen gunea ez zikintzeko. Manipulazio eragiketetan isurtzen diren hondakinak garraiorako langileek berehala erretiratuko dituzte.

Esleipendunak ordutegia zorrozki betetzen dela zaindu beharko du. Ordutegia ezinbesteko arrazoirik gabe behin eta berriz betetzen ez bada, Garbitania Zero Zabor-ek pleru administratiboetan xedatutakoari jarraiki, zigortzeko ahalmena izango du.

Esleipendunak kontainerren jasotze eta garraio lanetan lan arriskuen prebentzio arauak betetzen direla zaindu beharko du. Horretarako, eskaintzaileek beren eskaintzetan betetzeko neurriak definituko dituzte; zehaztasun mailak nahikoa zabala eta xehea izan beharko du.

Zerbitzu honen bidez jasotako material guztia Hernaniko udalerraren jabetzakoa izango da ondorio guztietarako.

### ***3.6. Hondakinaren garraioa***

Esleipendunak jasotako errefusa Errenteria-Oreretako udalerrian kokatutako San Markoren instalazioetako errefusaren transferentzia gunera garraiatu beharko ditu egun. Bere kabuz ezingo ditu esleipendunak beste inora eraman. Hustuketa puntua Garbitania Zero Zabor-ek aginduta aldatuko da soilik, eta aldaketa hori 20 km edo hortik gorakoa bada soilik izango du prezio unitarioan berrikuspena.

Esleipendunak une oro tratamendu plantak zehaztutako arauak eta baldintzak bete eta onartu beharko ditu.

Materiala deskargatzerako garaian hondakin ez onargarriak izateagatik, hauek berreskuratzea saihestu edo zailtzen dutelako, bilketa ibilgailuen karga tratamendu zentroan atzera botatzen bada, esleipendunak bere gain hartuko ditu behar bezala kudeatu arteko gastu guztiak.

Esleipendunak beharrezko neurriak hartuko ditu garraioan zehar hondakinik ez isurtzeko. Hala ere, kasua ematen bada esleipendunak ahalik eta azkarren garbituko du isurketa, honek inolaz ere kostu gehigarriak suposatzen ez duelarik Garbitania Zero Zaborrentzat.

#### 4. – ZERBITZUAREN ANTOLAKETA

Eskaintzaileek zerbitzuaren antolaketaren proiektua, bitartekoak eta langileak definituko dituzte, gutxienez honako puntuak azalduz:

- Zerbitzua eskaintzeko ekipoaren deskribapena: ibilgailu mota (fitxa teknikoa eta argazkiak) eta langileak.
- Esleipendunaren instalazio finkoetan edukiko diren erreserbako ibilgailuak eta ibilgailuen aberia nahiz programatutako geldialdietan zerbitzua zehaztutako egutegi eta ordutegian emateko aurreikusitako Jarraibideen Plana.
- Zerbitzua hobeto deskribatzeko beharrezko datu guztiak.

#### 5. – LANEN GAINBEGIRATZEA

Garbitania Zero Zabor-en esku geratzen da kontratatutako zerbitzuen zuzendaritza fakultatiboaren eskubidea erabiltzea. Horretarako, agiri honen xede diren lanen gauzatzea zuzendu eta gainbegiratuko duten pertsona arduradun bat edo gehiago izenda ditzake. Pertsona horiek lanen burutze zuzenaz arduratuko dira eta kontratistari edo Zuzendaritzako arduradunei bideratuko dizkiete beharrezko agindu eta jarraibideak. Horri dagokionez, esleipendunak proiektuaren arduradun pertsona bat edo gehiago izendatuko ditu Garbitania Zero Zabor-ekin hizketakide-lanak egiteko, gai hau idatziz komunikatu beharko delarik. Idatzian azaldu beharko dira jakinarazpenetarako izena, posta helbidea, telefono zenbakia, posta elektronikoko helbidea, etab. Aldaketarik dagoen kasuan, informazio hau eguneratu egingo da.

Esleipendunak astero honakoak igorri beharko ditu Garbitaniak agindutako helbide elektronikora:

- Intzidentziak
- Garraioen informazioa gutxienez honakoa zehaztuz: pisu gordina, tara, garbia, hondakin mota, LER zenbakia, pisaketa eguna, ordua, lekua, kamioiaren matrikula, albaran zenbakia, langilea, hondakinen jatorria (Hernani) eta eguneroko pisaketa taulak.

Hilabetea amaitu eta lehen bost egunetan posta elektronikoz hilabete osoari dagokion eta aurreko paragrafoan zehaztutako informazio guztia igortzeaz gain faktura aurreratuko du. Informazio hau guztia paperean hilabeteko azken egunaren ondorengo 15 egunen barruan igorri beharko da.

Kontratistaren betebeharra izango da Garbitania Zero Zabor S.M.k antolatutako bileretara honek zehaztutako leku eta orduan agertzea, kontratuaren inguruan eskatzen zaion dokumentazio guztia ematea Garbitania Zero Zabor S.M.k adierazitako epean eta baita honen langileei agiri honen xede diren zerbitzuekin erabat edo partzialki lotutako instalazio, bulego eta ekipamenduetara sarrera erraztea.

Eskatutako informazioa lantzea (inprimatzea, fotokopiatzea, euskarri informatikoan



grabatzea, etab.) esleipendunaren kontu izango dira, horretarako material eta ekipoen kostuak barne.

Zerbitzu hau esleitzeko unean, esleipendun enpresak aipatu hondakinak bildu eta garraiatzeko, Hondakinei eta zoru kutsatuei buruzko 22/2011 legeak jasotzen dituen eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailak jardueran aritzeko ematen dituen baimen eta erregistroen jabe izan beharko du. Horrez gain, egungo nahiz etorkizuneko araudietatik eratorritako beharrezko baimen guztien jabe izan beharko du. Honela, beharrezkoa izango da kontratista hondakin ez arriskutsuen garraiolari gisa homologatua egotea.

**EGINBIDEA.-** Baldintza Teknikoen Agiri hau GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ko Administrazio Kontseiluak onartu zuen, 2017ko maiatzaren 11n egindako bilkuran.

**Hernanin, 2017ko maiatzaren 11n.**

**LEHENDAKARIA**

**GERENTEA**